

ELAk nagusi izaten jarraitzen du EAEko Gizarte Ekimeneko Irakaskuntzan

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekimenezko ikastetxeetako ia hauteskunde-prozesu guztiak behin amaitu ondoren, ELAk eutsi dio bere nagusitasunari, langileen ordezkariaren erabateko gehiengoa (%57,22) lortu baitu.

Emaizta hori ikusita argi geratu da kidego horren gehiengoak sostengua eman diola 2008-2009 Hitzarmena sinatu izanari (UGTrekin batera), eta baita 2010 eta hurrengo urteetako hitzarmenaren oraingo negoziazio zailari ere.

Bestalde, denen agerian geratu da patronalaren estrategiaren porrota. Izan ere, ugazaben batzarretan, idazkietan eta ikastetxeetako klaustroetan beste sindikatu batzuk goraipatu dituzten bitartean, gurea gaitzetsi besterik ez dute egin.

ELAk murrizketen aurrean erakutsi duen jokabidea ere indartu da emaitza bikainen eraginez.

Jasotako sostengua eskertu beharrez gaude, eta eskertzeko modurik onena Itunpeko Irakaskuntzako kidegoaren alde egitea da, orain arte egin dugun bezala.

Sindikatuaren ordezkariak 2008ko ekainean eta 2011ko ekainean

	2008	%	2011	%	2008/2011
ELA	421	%57,20	424	%57,22	+0,02
CCOO	131	%17,80	129	%17,41	-0,39
<i>STEE-EILAS</i>	95	%12,91	95	%12,82	-0,09
LAB	46	%6,25	49	%6,61	+0,36
UGT	21	%2,85	22	%2,97	+0,12
Besteak	22	%2,99	22	%2,97	-0,02
Guztira	736		741		

www.ela-sindikatu.org

AFILIA ZAITEZ

<https://webposta.elasind.org/afiliazioa/afiliazioa.nsf/FAfil?openform>